

## **KALITATEAREN KUDEAKETAREKIKO GASTEIZKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLAKO BATZORDEAREN KONPROMISOA**

Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolako Batzordeak gure Eskolak onurak ekartzen dituzten errektoretza taldeak sustatutako egintza guztietan aktiboki parte hartu behar duela deritzo, eta bereziki Irakasleen Eskolak kide nabarmenak diren horietan.

Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskola kontziente da, UPV/EHU zentroyen funtzionamendua definitzen duten prozesuak hobetzeko kudeaketarekiko bikaintasunaren EFQM ereduaren ezarpena sustatzen ari dela kalitate arloan .

Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolako Batzordeak, zuzendaritza taldeak bezala, kalitatearekiko konpromisoan aurreratzen joateak, bai Zentroarentzako, bai bertan lan egiten eta ikasten ari direnentzako onurak ekarriko dituela uste du eta, horregatik, ildo honetan pausu garrantzitsuak eman dituzte, adibidez, 2008rako Hobekuntza eta Kalitate planaren onarpena, Kalitate Komisio berri baten onarpena eta haren kideen hautapena.

Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolako Batzordeak Zentroan egindako kalitatearen kudeaketak, ikasleei eskaintzen zaizkien zerbitzuen hobekuntza izan behar duela helburu eta zeregin honetan denok konprometitu behar gara adierazten du.

Azkenik, Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolako Batzordeak aurreko paragrafoan azaltzen den moduan, Zentrorako kalitatearen kudeaketarekiko konpromisoa adierazten du. Halaber, bere konpromisoa adierazten du Zuzendaritza Taldearekiko, Eskolarako planifikatutako hobekuntzak ezartzeko pausu egokiak ematen joateko lankidetzara adieraziz .